# Denbora-

## 1 Paulino detektibea

Kalean gertatzen diren gertaera arraroak ikertzea maite du Paulinok. Irudiei begiratuta, zer gertatu den kontatzeko gai izango al zinateke?





## 2 Erosketak

Fruta jatea gogoko du Leirek. Fruten balio kontuan hartuta, kalkulatu zenbat diru gastatu duen.













## 3 Mamuen mezua

Gaztelu zaharreko mamuek ez dakite hitz egiten, baina soinean hitz bat idatzia dute. Lotu kolore edo zenbaki bereko mamuak, hitza osatzeko.




Erantzunak: **2.-** 3,05 euro, 4,3 euro eta 3,7 euro gastatu ditu. **3.-** Epaitegia, erakargarritasun, parte-hartzaile, irregulartasun ea penagarri. **5.-** Martinek 3.750 kilo jaso ditu; Pellok, 4.450 kilo.

# -pasak

## 4 Osatu hitzak

Xirula jotzen duen aldiro, hitzak dantzan jartzen ditu aztiak.




B T E O R S A I Z



## 5 Harri-jasotzaileak

Egun osoa apustuak egiten igaroko lukete Pellok eta Martinek. Bakoitzaren altxaldi kopurua kontuan izanda, nork irabazi du gaurko apustua?









## Eskorgen lasterketa

Taldean eta bikoteka jokatzeko joko dibertigarria proposatzen dizuegu aste honetan. Ziur inoiz edo behin egin duzuela horrelako lasterketaren bat.

**1** Jokalariak bikoteka jarriko dira.
**2** Lasterketa hasi aurretik, irteera eta helmuga puntuak marraztu behar dira lurrean. Ezarri helmuga irteeratik hamar bat metrora.
**3** Bi eskuak lurrean jarriko ditu jokalarietako batek, eta bikotekideak hanketatik helduko dio. Lurrean dagoen jokalaria eskorga izango da, eta laguna, berriz, eskorga daraman baserritarra.
**4** Lasterketa abiatzeko seinalea entzun orduko, helmugarantz abiatuko dira jokalariak. Ahalik eta lasterren joatea komeni da.
**5** Helmugara iritsi orduko, jokalariak postuz aldatuko dira, hots, eskorga baserritarra izango da, eta baserritarra eskorga.
**6** Joan-etorria bizkorren egiten duen bikoteak irabaziko du lasterketa.